





GRUPO BENTAS ESPECIALISTAS FORMADORES: ERA-PRESTAKUNTZA digitala



Ana Blanco Martínez
ablanco@grupobentas.com
617495543
<https://www.grupobentas.com/>

-
-  **Jarduera:** Grupo Bentas taldeak pertsonen merkataritza-trebetasunak garatu eta indartzen ditu euren erakundeetako emaitzak hobetzen lagun dezaten, aurrez aurreko prestakuntzaren, merkataritzako laguntza teknikoaren eta coachingaren bidez.
 -  **Sektorea:** Bigarren Hezkuntza Tekniko eta Profesionala
 -  **Enplegatutako pertsonen kopurua:** 4
 -  **Lokalizazioa:** C/ Huertas de la Villa Nº9 3ª planta. Dpto B, 48007, Bilbao - Bilbo, Bizkaia

ESTATU mailako berrikuntza INKREMENTALA**Zergaitik izango litzateke berrikuntza kasu praktiko bat?**

Grupo Bentas taldeak egungo eskari eta egoerara egokitzeko prozesu bat gauzatu duelako, bere balio-proposamenaren berrikuntzaren bidez; izan ere, hura metodologia berritzaile bihurtu du, erakundearen negozio-lerro propio bilakatu diren teknologia, dinamikak, edukiak eta baliabideak aplikatuta. Horrek guztiak lehiaren aurreko posizionamendu diferentziala indartu du, eta bizirik irauten eta merkatu eta sektore berrietara sartzen lagundu dio.

KASU PRAKTIKOARI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA

Erakundeak 22 urteko esperientzia du prestakuntzako espezialista gisa, merkataritza-komunikazioaren, salmenten eta negoziazioaren arloetan. Ibilbide arrakastatsu luze eta zabal horri esker, aurrez aurreko prestakuntzaren metodologia berritzailea garatu ahal izan dute, eta erreferente bihurtu dira salmenten prestakuntzan.

Jatorrian % 100ean aurrez aurrekoa zen formatu batetik abiatuta, pandemiak beharrezko egin zuen sistema eta balio-proposamena berriro planteatzea, bizirik iraun ahal izateko; horretarako, prestakuntza-modalitateak formatu digitalera igaro ziren, eta uneko eskariari erantzun zitzaion, ordura arte lortutako balio erantsia galdu gabe. Hori dela eta, beste helburu nagusietako bat zen iraunkortasun ekonomikoa lortzea, "kalitatezko hezkuntzarekin" lerrokatuta (4. GIH).

Proposatutako helburuak lortzeko, hasierako benchmarking bat egin zen; ondoren, hornitzaile teknologikoekin kontrastatu zen eta barneko prestakuntza egin zen teknologian. Horrela, online prestakuntza-metodologia berritzaile bat finkatu zen, zeinak ondoren lanpostuan aplikatzea ziurtatzen duen. Horrela, gainera, Grupo Bentas taldearen prestakuntza-eskaintza zabaltzea lortu dute.

Ekimena aurrera eraman ahal izan da hainbat lankidetzatan oinarrituta, eta horiek ekarpenak egin dituzte inbertsio teknologikoetako analisi- eta aholkularitza-prozesuetan. Horrekin batera, bezeroen talde pilotuak erabili ziren ondoren emaitza ebaluatzeko eta amaierako zerbitzua zehazteko. Zehazki, bezeroekin lankidetzako hausnarketa-prozesuak egin ziren, baita doako prestakuntza-probak ere; horri esker, metodologia berria ahalik eta gehien zehaztu zen. Saio guztiak amaitzean, parte-hartzaileei inkestak bidaltzen zitzaizkien. Horien bitartez lortutako ondorioek erakutsi zuten online metodologia berria arrakastatsua eta onuragarria zela.

Aurrekariak

Osasun-alarmaren egoera dela eta, 2020ko martxotik aurrera Grupo Bentas taldeak galerak izan ditu diru zorroan, aurrez aurreko prestakuntzaren jarduera nagusia bertan behera gelditu baitzen. Ondorioz, enpresa ABEEEan sartu zen halabeharrez, eta jarduera bideratu behar izan zuen erakundeak bizirik irauteko eta berriro ere diru-sarrerak edukitzeko.

Erronka

Grupo Bentas taldeak etengabe hazi nahi du, eta lidergoari eutsi nahi dio prestakuntza-sektorearen espezialitatean; horretarako, balio-proposamena berri nahi du, egungo bezero-zorroa mantentzeko eta merkatu-segmentu berriak eskuratzeko, duela 22 urtetik izan duen kalitatezko espezialistaren posizionamenduan oinarrituta. Erronka ere bada produktu erabat berriak sortu eta diseinatzea (laguntza materialak) ekonomikoki mugatuak diren baliabideekin.

Ekintzak

1. Benchmarking bat eta hasierako hausnarketa egitea lortutako bezeroekin eta hornitzaile teknologikoekin.
2. Oinarritzako prestakuntza-ekintzak diseinatu eta zehaztea (programatutako prestakuntzekin jarraitzeko, inguruabarren aurrean eten behar izan baitziren). Ekintza hori, era berean, proba pilotu gisa erabili zen xehetasunak zuzentzeko.
3. Prestakuntza propioa teknologia eta plataforma digitaletan, aukerak aztertzeaz gain.
4. Lankide teknologikoak eta diseinatzaile grafikoak hautatzea.
5. Aurreikusteko ustiapen-kontu bat eta merkataritzako ekintza-plana prestatzea (zarata- edo ikusgarritasun-plana).
6. Prestakuntza-programak esperientzia berrira egokitzea eta ibilbide berriak diseinatzea prestakuntza-behar berri horiei erantzuteko.
7. Merkataritzako aginte-koadroaren (MAK) diseinua berrikusi eta mantentzea: bezeroen, emaitzen, prozesuen eta pertsonen adierazleak.
8. Edukien garapen propioak eta pedagogia, psikopedagogia eta merkataritza-esperientzia batuz.

Lortutako emaitzak

- Bezero preskriptoreak lortu eta berreskuratzea (UPV-EHU, Deustuko Unibertsitatea, MLBF, Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera, Gipuzkoako Ganbera, CEBEK, Dema-Enplegu eta Ekintzailetzako Foru Agentzia, eta Beaz).
- Ezarritako helburuak gainditzea, bai ikastaroen bolumenean (50 ikastaro emanda) eta bai epe laburreko fakturazioan (2020ko maiatzetik abendura).
- Bezeroek hautemandako balioa handitzea, tresna teknologiko berriak gehitu eta zerbitzuen eskaintza zabalduta.
- Efizientzia handitzea administrazio-gastuak eta merkataritza-kudeaketako orduak murriztu, baita lekualdatzeetan emandako orduak ere.

- Eboluzioa eta kontrastea metodoa garatzerakoan, eta ebaluazio anonimoak oso ongitik (nota globala: 8) bikainera igarotzea (nota globala: 9).
- Posizionamendu positiboa ikasle eta bezeroen eskutik, LinkedIn bezalako sare sozialetan.

KASUAREN KATEGORIZAZIOA

Berrikuntza-eremuak:

- Produktua: Zerbitzuak.
- Prozesua: Ondasunak ekoiztea eta zerbitzuak ematea, Marketina eta salmentak.
- Negozio-eredua:

Aukera arloak:

- 1 - Eraldaketa teknologikoa/digitala

Ana Blanco Martínez (Bazkide fundatzailea)
 “Metodologia guztia garatu dugu ondasun
 ukigarri taktiko bihurtzeko”

Ana Blanco Martínez (Bazkide fundatzailea)
 “Aurrez aurrekora itzultzekotan, digitalean
 egindako berrikuntzari eutsiko nioke, oso
 indartsua baita”.

Innovation Index Score: ★★★★★

Lerrotatze estrategikoa: ★★★★★

Kreatibitatea: ★☆☆☆☆

Kolaborazioa eta hibridazioa: ★★★★★

Sistematizazioa: ★★★★★

Eraginkortasuna emaitzetan: ★★★★★

Efizientzia emaitzetan: ★★★★★

Erreplikagarritasuna eta transferigarritasuna: ★★★★★

★

Eragina: ★★★★★

Aintzatespena: ★★☆☆☆